

Nafarkaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko ekainaren 3a / IV. urtea / 130. zenbakia

Bordinitarrak dira, 1512an Errusia eta Alemaniako errege eta jauntxoaren aurrean jauzika eta itzulipurdika aritzen ziren saltinbancien familiaren hondarrekoak. Nafarroan egon dira azken bi aste hauetan, beren arriskua saltzen, eta ahoa bete hortz utzi dituzte ikusi dituztenak. Alemaniatik datoz, eta urtean zehar mundu zabalean

Itzulipurdietatik metalezko harietaraino

aritzen dira kamioi, trailer eta karabanekin, baina mundu hori gustukoa dutela diote, «artistak baikara». Azkenak dira, beraiek bezalakoez ez baitiete telebistari eta aurrerakuntzei eutsi, garai berriak sobera izan zaielako. Hauek, itzulipurdiei utzi eta hari metalikoari heldu diote, aurretik zuten xarma apurra galdu gabe.

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Cindy Sherman argazkilaria Santa Marian

Cindy Sherman argazkilaria iparamerikarra kameraren bi aldeetan jartzen da eta atzean dagoenean bere lana egiten duen edozein bezalakoa da, argia neurtu, enkuadreak aukeratu, itzalak bilatu, kontrasteak areagotu, adierazi nahi duena prestazen du azken finean, baina beste aldera pasatzen denean hamaika pertsonaia bilatzen da: senarraren erasoak jasan berri duen etxe-koandrea, ondoko izkinako prostituta, berrogeita hamarretako zine izarra, Bronxeko jonkia, zikinkeria erdian bizi den eskale desahuziatua, limousina batetik ateratzen den kantari glamouretsua, edota bizitza leihotik begiratzen duen filosofari bo-kazionala edo suizida potentziala. Argazki guzti hauek ikustean pentsatu dut beharbada egia dela Borge-sen errelato askotan errepikatzen den teoria bat, gizon bat gizon guztiak dela edo emakume bat emakume guztiak, pertsona batengan munduko gizaki oro sartzen dela, alegia. Horrela, Garzon jauna epailea litzateke, bai, baina aldi berean kokaina garraiatzen duen narkotrafikantea ere izan liteke, edo Afrikako herri batean gaisoak sendatzen ari den misiolariak kontu korrente sekretoak izan litzake Suitzan, eta azken Pulitzer saria irabazi zuen argazkilarik ez zekien bere autoretroa egiten ari zenik, bera zela putrearen aurrean erortzeaz zegoen umea, edo agian bazekien eta testamentu grafikoa utzi nahi izan zigun.

Oso pertsonaia diferenteak dira Cindy Shermanenak; hala ere argazki guztietan elementu amankomun bat soma daiteke, berak zioenez hasiera batean ikusi ez zuena, heriotza. Ez da gehiegi nabarmentzen eta bakarrik giro ustelduen argazki serietara iristean ohartzen gara izkina batean dagoela. Ondoren konturatuko gara atmosfera berberak inguratzen duela top-modela. Ongi prestatutako fikziozko irudiak besterik ez direla esango du baten batek, baina nik oso antzekoa den zerbait ikusi dut Mario Rubioren atzean eta Tuzlako emakume musulman baten inguruan. Juan Carlos Onettik aspaldian erreparatu zuen heriotzean, toki guztietan ikusten hasi zen eta horregatik sartu zen ohean. Cindy Shermanek Santa Maria hiria erretratatu du bere argazkietan oharkabea, eta hor denok azaltzen gara, guziok gara Cindy Sherman eta noraezean gabilta gure irudia etengabe multiplikatzen eta deformatzen duen ispilu baten aurrean, munduan, Santa Marian.



JOXE LACALLE/JOXEAN APEZTEGIA

X GURE AUKERAK

BERTSO SAIOAK



Sebastian Lizaso eta Iñaki Múrua bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, ekainak 3, Leitzako elkartearen. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etan hasiko da.

Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariak ariko dira gaur ostirala, ekainak 3, Tuterako Hizkuntz Eskolako areto nagusian. Arratsaldeko 19.30etan hasita, Eskolak berak antolatu du eta saio irekia izanen da.

ANTZERKIA



Hitz-Anaitasuna antzerki taldeak 'The Kloniko's cuentos' izeneko obra aurkeztuko du heldu den astelehenean, ekainak 6, Ermitagainako Institutuan. Ermitagaina-Mendebaldeko Aste Kulturalaren barruan, arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

Azkona antzerki taldeak haurrentzat zuzendutako obra bat eskainiko du bihar, ekainak 4, Burlatako Eliz Enparantzan. Herriko Axular elkarteak antolatutako Kultur Astearen barruan.

'Sesion de tarde' izeneko antzezlan taularatuko du Teatro Imaginario taldeak asteburu honetan Ledea eta Olague herrietan. Udaberriko Bira programazioaren barruan, bihar arratsaldeko 18.00etan Olagueko herriko plazan ariko dira.

MUSIKA



Izugarri musika folk taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du gaur ostirala, ekainak 3, Burlatako Torres enparantzan.

'La serva padrona' G.B. Pergolesiren opera emanaldia izanen da gaur ostirala, ekainak 3, Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

BESTELAKOAK



Bardeak ezagutzeko asteburuko bidaia antolatu du Sakanako Kirol Batzordeak. Larunbatean, ekainak 4, 45 kilometroko ibilaldia burutuko da (Zarrakaztelu-Arista Bonita-Santa Margarita), eta igandean 30 kilometroko martxa izango da (Santa Margarita, Rincon del Bu-Nuestra Señora del Yugo).

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Ustelkeritxoak

Gabriel Urralburu jauna ez da berriro PSNko zuzendaritzan egongo. Huarte enpresaren adjudikazioen inguruko ikerketak, beraz, eragin garrantzitsua izan du. Hemen ere, dimisioarekin konpondu omen da dena: ustelke-

patzekotan, Nafarroako Diputazioari langileendako loteria erostera joaten da egunero mezulari bat. Mila pezeta egunero. Hirurehun milatik gora urtero. Hau da, urtero dirutza polita ordaintzen dugu nafarroko funtzionarien loteriarako.

tzen dute txartela ateratzera koan, baina ez sartzerakoan. Azkarrak, udal langileak. Iku-siak ditut nik ere hamar metroko distantzia dauden langileak telefonoz hitz egiten, ez altxatzeagatik edo —nahiko lan!—, eta baita hamar bat



ria ezabatu da, alegia. Berriro itzuliko gara eguneroko jarduerara, eta laster ditugu hauteskundeak: betikoei irabaziko dute, zein alderditakoak diren gora-behera.

Baina badira, maila handiko iruzurretatik hurbilago, eguneroko iruzur txikiak, ustelkeritxoak, publikoa den orok ustelkeria dakarrela diotenari arrazoi ematen diotenak. Ai-

Irakurketa franko ditu aferak, baina nagusia, denen diruarekin aritzeak ematen omen duen axolabaikeria. Eta horietatik montioa.

Iruñeko udaletxean fitxatzeko tramankulua paratu dute sarreran, hamaiketako hartzeko langileek duten tarte-txoan dendak ikustera edo bazkaria erostera joaten zirelako. Ondorioz, langileek sar-

pertsona aurkitu bulego batean eta zain egon beharra denboratxo batez, inork ez baitzuen keinurik egiten atenditzeko. Gogorra da funtzionarien lana, badakizue. Ezagutu, ezagutu ditut astero, lan orduetan, liburu bat irakurtzen dutenak. Horiek ez dituzte epaituko, jakina, eta ez da ikerketa batzordea osatuko. Baina marroak egin...!

ASTEKO PERTSONAIAK



Javier Garro
Osasunako Presidentea



Anjel Lertxundi
Idazlea

Fermin Ezkurak azken 22 urtetan betetako postua lortu zuen joan den asteazkenean Javier Garro Tafallako semeak, Osasunako presidentearen aulkia, hain zuzen. Fernando Ruiz izan du arerio hauteskunde hauetan, baina alde handiarekin irabazi du Garrok, botoen % 83 lortu baitzuen. Emaitzak ezagutu eta gero oso pozik agertu zen presidente berria, nola ez: «izugarritzko poza sentitzen dut, benetako irabazlea, gainera, Osasuna izan delako, hauteskunde hauetan frogatu baita osasunzaletasuna bizirik dagoela. Heldu den urtean Lehen Mailara igoko gara». Txetxu Rojo izango da, beraz, Osasunako entrenatzaile berria. Bizkaitarra zenbait aldaketa egiteko prest agertu da eta astelehenean aurrera lanean hasiko da, gogo handiz gainera.

Anjel Lertxundi euskal idazle ezaguna egon zen Iruñean astelehenean, 'Otto Pette' bere azken eleberria aurkezteko. Erdi Aroan giroturik, biharko klasiko bat izango dela aipatu dute dagoeneko batzuek. Ez da, baina, bakarria izan, Pello Lizarralde nafarrak ere bere narrazio liburua aurkeztu baitu aste honetan, eta ostiralean Txema Larreaen 'Euskaldungoa erroizturik' ere plazaratu zuelako Pamielak. Izan ere Iruñea Euskal Herriko hiriburua izan baita, argitalpenei dagokienez, aspaldi honetan, Txalapartak ere liburu franko plazaratu dituelako. Dena Iruñeko Liburu Azokara begira, garai honetan Durangoko Azoka txikia osatzen dela esatea ez da, beraz, hitz arrandiosoa kasu honetan.

AHAZTU GABE!

IBILALDIAK



Guardetxeko igoera izango da igande honetan, ekainak 5, Lakuntzan, azkeneko zortzi urte hauetan bezala, Korpus Kristi egunean. Igoera goizeko 10.30etan hasiko da, Lakuntzako plazan. Hamabi kilometroko ibilbidea da, sei Guardetxeraino igoera eta beste sei jaitsiera, bide beretik biak. Lakuntzako Kirol Batzordeak antolatuta, sari garrantzitsuak ezarri dituzte aurtengo edizioan. Gizonezkoetan, senior mailan, lehendabizikoak 40.000 pezeta, trofeoa eta txapela irabaziko du. Bigarrenak, 25.000 pezeta eta trofeoa eta hirugarrenak 20.000 pezeta eta trofeoa. Frogaren errekorra egiten duenari 10.000 pezetako saria emango diote. Emakumezkoetan, lehendabizikoari 15.000 pezeta eta trofeoa. Herrikoen artean ere banatuko dira sari bereziak. Lehendabizikoari 10.000 pezeta, bigarrenari 7.000 eta hirugarrenari 5.000. Errekor lokala egiten duenak 10.000 pezetako saria jasoko du. Herrian egingo den zirkuitoan, haur eta gazteentzako frogak izango dira.

JENERO XUMEKOAK

Klaus Kinski Aranoko neskari telurikuki (II)

Maitale telurikook horrelakoak sentitzen ditugu, 'gaur oso kontent nago egiazko, zaldi batean bait nabil eta Ilargiari inork ez liokelako Andrea deituko'. Zakarrontziek diotenez, gauza bakoitzak bere lekua dauka.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



HERRIZ BERRI



Tutera



Bardeei buruzko astea ospatu da Tuteran.

Poligonoaren kontrako martxa

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Igande honetan egingo da Bardeetako Tiro Poligonoaren kontrako VII. Martxa, aste osoan zehar ospatu den asteari amaiera emanez. Izan ere, asteartean Bardeetako Parke Naturalari buruzko mintzaldia izan baitzen, Jose Antonio Gaiarre Bardeetako presidentea, ehiztarien ordezkari bat, Jose Angel Perez-Nievas abokatua eta Landazuria talde ekologistako partaide bat bertan zirela.

Atzo, osteguna, intsumisioari buruz beste mintzaldi bat zegoen

iragarrita Castel Ruiz kultur etxean, arratsaldeko zortzietatik aurrera, Felipe Gurrutxaga abokatuaren eskutik.

Gaiari buruz aditua, bere esku hartu ditu Iruñean intsumisioen kontra egin diren epaiketa franko, eta Subiza abokatuarekin batera gai honen alde juridikoari buruz gehien dakitenetakoa da Gurrutxaga.

Baina bihar, larunbata, eta igandea izango dira poligonoaren kontrako egunik garrantzitsuenak. Bihar zezenplazan ariko dira kontzertuan Patagonia, The Riberos eta Piskerra taldeak.

Euskaraz abesten duen Erriberako talde honek bere azken kontzertua emango du bere herrian, musika munduan hamar urte baino gehiago aritu ondoren. Ez du te fama handirik eskuratu, eta ezinbestez, agur esango diete beren zaletuei.

Igandean Martxa egingo da, ohi bezala bertako talde frankok deituta. Urteroko gaurkotasun berberarekin, aurten bereziki egokia izango da martxa, joan den astean bertan benetako ariketa militarrek egin baitziren Bardeetan, Felipe Espainiako printzea bertan zela.

Arbizu

Zabortegiari buruz batzarra eskatu du HBko taldeak

ARBIZU

Arbizuko Herri Batasuna taldeak batzarra egiteko eskatu du herrian eraikitzen ari den zabortegiari buruz mintzatzeko, kontuan hartuz azkenotan zabaltzen ari diren berriak. Taldeak kritikatu egin du Udalak gai honen inguruan duen jarrera, ez baita jakinarazi proiektuari buruz dagoen informazioa; gainera, berri ere, zabortegira Sakanatik kanpoko hondakinak ekartzearen aurka azaldu da.

Arbizu aukeratu zuen Sakanako Mankomunitateak inguruko zaborrei tratamendua emateko. Izan ere, ez baitzen Sakana osoan horretarako tokirik, eta batzuk egin beharrean, eta kontuan hartuz Mankomunitateak baduela gai honetan eskumenik, eskualde osorako bakarra egitea erabaki zen, Arbizuko Udalaren oniritziarekin. Horren ondotik, Udalak Utzubarren utzi zituen lur-sailak bertan kokatzeko zabortegia eta birziklatze zentroa.

Hala ere, duela gutxi zabaldu zen enpresa pribatu batek Mankomunitatearekin sinatu zuela akordioa, zaborrak tratatzeko metodo berri bat paratzeko. Metodo berriak termolisia du izena eta Arbizuko zentroan frogatuko da lehendabiziko aldiz. Hala ere, errentagarria izan dadin, 60.000 tona zaborra behar dira urtean, eta Sakanak 10.000 baino ez ditu sortzen. Beraz, bada enpresaren asmoa Iruñetik eta Gasteiztik hondakinak ekartzeko. HBren ustetan, hori oso arriskutsua litzateke, hondakin batzuk industriak edo eritetxeek ekoizten dituztenak izango lirateke eta. «Inportantzia handiko arazoekin ari gara, eta gauzak ezkutuan egiten ari dira, herriari bizkarra emanda. Eta gehiago oraindik, udal plenotik pasatu gabe, udalak sistema hori onartu gabe, alkatetarako paperak tramitatu eta Iruñera bidali dituelako». Horregatik EAren jarrera kritikatu du taldeak, «ez duelako informatzeko batzarrik egin nahi».

Halaber, horrelako gaien informazioa jakinarazteko behar diren 15 egunak ez direla bete salatu du HBk, «astebete bakanrik egon direlako paperak».

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Sublimazioak

Ene lagun min batek Santo Tomasek jaingoikoaren existentzia frogatzeko asmatutako bide guztiak kolokan jarri zituen joan den egunean futbolinean ari ginelarik. Jakina denez, Diez tabernan 'pierdepaga' izeneko eran jokatzeko da. Hots, galtzen duenak hogeita hamar jartzen ditu eta beste bikote bati uzten dio bere tokia. Horretan ari ginen tabernako bikoterik harropuntzenaren aurka, eta derrepentean eta inolako zailtasunik gabe, lau gol egin zizkigun bikote gorrotagarri horrek. Lau huts, txanpona hautsontzira, eta laguna eta biok kalera.

Bi harroputz kima luzedunek, irrifartsu, eskuekin hilea atzerantz bota eta «hurrengo, faborez» esan zuten. Lagunak, Aquinoko santuaren argudio guztien kalterako, zera bota zuen orduan: «Kaben Dios» esan nuke gus-tura, baina ez dut esanen, ez baitut uste jaingoikoa existitzen denik, existituko balitz ezin izanen luke eta gertatu dena gertatzen utzi».

Lasai, ez dut eta gaurko kolumna honetan jaingoikoaren existentziaren inguruan argudio gehiago plazaratuko. Futbolaria helduko diot; izan ere, nabarmena da oso Iruñeko Alde Zaharrean beste inon baino jende gehiago aritzen dela futbolinean. Diez, Primi, Toki eta beste hainbat taberna horren lekuko. Asegarcek futbolaria profesionalizatzen ez duen bitartean horretan aritzea ez errentagarria izanen. Beraz, zer dela eta aritzen da —gara— horrenbeste lagun joko tentel horretan? Bada, psikologoa den nere lagun baten teoriaren arabera, ase gabeko behar sexualak sublimatzeko balio duelako. Ez da harritzekoa, jakina baita Iruñean miraria dela, eta ez pekatua.

Donamaria



Golbaiko pistaren aurka Iruñean

Joan den larunbatean Donamariako bizilagun talde bat izan zen Iruñean, Nafarroako Gobernuak Golbain egin nahi duen pistaren aurka azaltzeko. Bizilagunek alkatearen jarrera kritikatu zuten, herriko biztale gehienek pistaren kontra sinatu baitute. Hala ere, lanak berehala has daitekeela ohartarazi zuten.

GOIZANE
JATETXE BEGETARIANO

Irunlarrea kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),
Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑEA

Te areto
integrala

Urepele, ur epela? Baito!

● Urregoria montioa omen zen, eta, hortik hartu omen du izena Kintoaz bertaldean dagoen lehendabiziko herriak, hots, Urepelek. Horixe erakutsi zigun, behintzat, duela zenbait asteko Nafarkariak.

Burua ederki jantzia duten jaun aditu horien baimenaz baliatuko gara Urdaitzeko benta zaharrean aditutakoa lerroon bidez kontatzeko. Gure protagonista Urbano Egozkue bertsolaria da, Luzioinbordako semea. Ez dira guti gertatu zaizkion pasadizoak. Honatx horietako bat, Kruzito Lintzoain eugiarraren eskutik ailegatu zaiguna, bertze eugiarraren izakeraren erakusgarri. «Aldi batez Urepeleko bestetan ginelaik, hara zer gertatu zen. Urepelen errota bada, Harara ura joaten da, ugaldetik hartu eta bide bazterrez erreka batean. Bazoazin Urbano eta Olaguko mutiko bat, eta, han koardilla baikinena eugiarrak, oinez harata joanak. Badira bi auzo Urepelen. Gu beheko auzoan ginen, han dantza izaten zen eta han gu. Dantza akitu zelaik, gainera auzoan bada ostatu bat eta harara joan ginen, gu baikinena andana bat, eta, hau (Urbano) gelditu zen Olaguko horrekin azkena. Badakizu, hau beti azkenetik ibiltzen baitzen. Bazoazin, eta, bada bide puska bat, eta, bada bide bazterrez bazter kanal hori, errotara daen kanala, ura, errota ibilarazteko. Bazen, halako pareta puska bat, apala, eta ilun baitzen, arrot ilune, ortots erauntsie

izandu baitzen, eta argiak ezin ziren itzali. Bazoazin biak, tipiti tapata, tipiti tapata, eta honen igotzen du pareta puska hura zangoz, eta, iepea, beheiti, eta, honen laguna, bertzea, ezkerreko aldetik omen zaen, eta, «Dios! Hori nola erori da?».

Hasten da ikusten, eta hura berdin. bide beretik joan zen, danba! eta, Urbano orduko zuti-tuik, eta, erran zion olaguarrari:

—Baduzu lizentziarik arrantzura etortzeko?— Atra ziren, goitixeagotik kanale horrek badu atraiera. Pallako Tote agertu zen eta lanrobe-reko argieki atra ziren. Gu orduko, mahaian jarriarik ginen, ostatu hartan, eta bazen han gizon bat ohialak eta saltzeko, eman ziezien eta aldatu ziren. Urbanok galtzetan animaleko tarrata egina zuen eta afalondan bertsotan hasi ziren hau eta Xalbador.

—Bai— dio Urbanok berak, —oraindik tenplatuik holako freskaldia hartuta, bainan tontuak izan ginen bai. Bota ginen urera buruz beheiti eta harara egon bagine, anka idortuik idukiko genituen. Bueltan eman ginuen atratzeko eta, orduan, gorputz guzia bustirik. Gero segidoan joan nintzen ostatura eta ataritik erran nioten: «Urepele, Urepele. Baito! neguko horma baino hotzagoa da hemengo ure!».



Kike Diez de Ultzurrun *Kazetaria*

Bordinitarrak Hari metalikoen gainean hazitoak



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ez da aiton-amonek kontatzen dutenetakoa zirkuak herri osoa astintzen zueneko garaia. Duela gutxi arte ikus zitezkeen herri eta hirietan abildade handiko akrobatak, adimen harrigarriko animaliak, ausardia soberazko bezi-taileak edo grazia jasanezinezko pailazoak. Belaunaldi asko hazi dira karparen azpiko ekitaldi zoragarri horiekin batera. Baina zirkuak hil da ia. Telebista eta filmeetako irudiek nabarmen gainditu dute errealtatea, eta gaurko haur askoren artean barreregia sortuko luke lehen izua sortzen zuenak, eta izua eragingo barre egiteko antolatutak zeuden ikuskizunak batera joateko proposamenak.

Zirkuak zen mundu horren erreferentzia, eta kaleetan barna ibiltzen zirenek —txerpolariak, koblakariak, saltinbankiak— beste maila apalagoa zuten, antza. Ez ziren zirkuak, familiaz familia jasotako tradizioaren azken hondarrik baizik. Horietakoak dira Bordinitarrak. Horietako azkenak. Oraindik herri herri saltzen dute beren imajinarioa

eta beren arriskua, beren bizitza, baina zirkuarekin zer ikusi gutxi dutela azpimarratu dute. «Haiek sarrera kobratzen ute, sare batekin egiten dute lan eta estalia dago; gainera, gu artistak gara», argitu du Mikel Bordini Nafarroan izan den taldeko buruak.

Mendeetan galtzen den familia honen historia bitxia da oso. Erdi Arokoak dira lehen aipamenak, eta geroztik mundu osoa kurrutu dute, hasieran hari metalikoak edo lur gaineko akrobazioak eginez, zaldiz eta gurdiz, egun izugarriko tresneriarekin, «Mercedes», kamioi eta karabaneekin. Hiru taldetan banatuta ari dira egun, bat Euskal Herrian eta beste biak Espainia aldera, eta abenduan itzuliko dira Alemaniara. München dute etxera, hurrengo urteetan aurkeztuko dituzten ekitaldi berriak prestatzeko.

Jaiotzen direnetik hasten dira Bordinitarrak jauzika. Mikel Bordini gogoratzen duenez, hiru urte zituela altxatu zen lehendabiziko lurretik gora nabarmen. «Ni hari metalikoaren gainean jaio nintzen» dio, irribarretsu. Izan ere, haiek sinetsirik daude



bizitza honi eutsi ahal izateko odolean eraman behar dela grina, artista behar dutela izan. «Bada gurekin lan egiten duen jende asko, baina hiru hilabete baino gehiago ez dute irauten. Oso jende gutxi eraman dezake bizimodu hau. Horretarako artista behar da izan». Ez artista behartuak, ordea, beste bizimodurik ez zuketela onartuko antzeman baitzaie. «Ez da gogorra, honekin ohituta egonez gero. Guk behar dugu

Oso jende gutxiak jasan dezake bizimodu hau. Horretarako artista izan behar da».

etengabe alde batetik bestera ibili, bestela aspertzera gara eta».

Harro diote azkenak direla, eta batere modestiarik gabe onenen titulua paratzen diote euren buharri. Besteek etsitakoan eutsi izanak, ordea, badu bere prezioa: lehia etengabea. «Gero eta gauza zailagoak ekartzen saiatzen gara», dio Mikelek, «hori baita gure oinarria: zailtasuna eta erakarritasuna». Horrekin batera, goitik behera profesionala den egitura sortu dute 45 pertsona biltzen dituen taldearen inguruan. «Familia txikia izanez gero, zail da eusten, baina gurea bezalako erakundea antolatuz gero, gauzak errazagoak dira. Izan ere, muntaiak handia paratu behar da jendea erakartzeko, teletikaz betetako etxeetatik ateratzera behartzeko».

Taldearen barruan badira zortzi Bordinitarrak, «agintzen dutenak»; eta beren inguruan langileak, abokatuak —tokiz tokiko papera eta baimen guztiak biltzen dituen taldearen inguruan. «Familia txikia izanez gero, zail da eusten, baina gurea bezalako erakundea antolatuz gero, gauzak errazagoak dira. Izan ere, muntaiak handia paratu behar da jendea erakartzeko, teletikaz betetako etxeetatik ateratzera behartzeko».

«Materialari dagokionez ez da arazorik, eta gu oso ondo entrenatuta gaude».

Gustuko tokiak ere badituzte, eta Italia, Espainia eta Hego Amerika nahiago. «Toki hauetan jendea irekiagoa da, eta multzoak etortzen da gure ekitaldietara. Alemanian, kasu, sarrera paratu behar duzu, bestela jendea ez baita joaten. Gero eta garestiagoa, orduan eta jende gehiago». Urte hauetan guztietan istripu larriak ez dute izan, ez behintzat hildakorik, nahiz eta duela zenbait urte, Italian, Walter Bordini 30 metroko alturatik erori. «130 hezur-haustura zituela eraman zuten erietxera, baina onik ateratu zen».

Ez dira etorkizunaren beldur, eta aurrera jarraituko dutela diote, «ezbairik gabe», nahiz eta horretarako arriskuaren prezioa



Iruneke Foruen Enparantzan aurkeztu duten ikuskizunak jarriera ezin hobea jaso du jendearen aldetik, eta Bilbon 150 metroko alturan egingo dute lan. Urte hauetan guztietan ez dute gogortzen hildakorik izan den istripurik. JOXE LACALLE

Guk egiten dugunak erraza irudi lezake teletikaz ikusten denarekin alderatuz, horregatik gauza gero eta zailagoak egin behar ditugu».

ordaindu behar duten. «Egia da teletikaz publikoa kendu dugula. Guk egiten dugunak erraza irudi lezake teletikaz ikusten denarekin alderatuz gero. Horregatik, egunetik egunera gauza gero eta zailagoak egin behar ditugu. Eta oraindik egin daitezke».

Egun Donostian ari dira, eta heldu den astean Bilbon izango dira. Grabagailua itzalita, Mikel Bordini etengabe galdetu du ea zer moduzko tokiak diren, eta hango jendeak ezagutzen dituen. «Bilbon hiru dorre eramango ditugu», dio harrosko, «eta 150 metroko alturan ariko gara». Harreman publikoetarako «aditu askoak» direla dio barrezka, eta ez da dudarik jarri beharrik. Soilik lanean ari diren onartzen ditu argazkiak, eta ez du eskutik askatu telefono mugikorra. Ez dira guk ezagutu genituen saltinbankiak, prakak adabakiz josita zizutela herriko ostatuan bazkalatzen zutenak, baina gaurdaino heldu direnak dira. Ez baita gutxi.

Erregeen jostagarri

A.B. / IRUNEA

■ 1512ko kronikek jasotzen dute Errusiako eta Alemaniako errege eta jauntxoaren artean hari metalikoen gainean jauziak eta akrobaziak eta lur gainean zailtasun handiko ikuskizunak egiten zituen talde baten aparteko abildadea eta fama. Bordini familiakoak ziren, eta nahiz eta abizenak bestelakorik sinestara, gaur egungo Alemanian sortuak ziren, Münchenen. Ugariak ziren mundu zabalean besteak laketarazten bizi ziren taldeak: saltinbankiak, txotxongiloak, pailazoak, bertsolariak... Gutxi heldu dira gaur arte, eta bakan horiek azken zirkuetan pilatu dira hondarretako urteetan. Etorkizun zalantzazkoa, nonbait, teletikaz eta elektronikaren garaian.


Bordini familia heldu da, baina, eta jendeak bere borondatez saketatetik ateratzen duenari esker bizi dira, bizi ere, eta plazak betetzen ditu. Zortzi dira Bordinitarrak, eta 45 konpainia osoan: teknikariak, abokatuak, irakasleak eta langileak biltzen dituen konpainia erraldoian. Hiru taldetan daude banatuta egunotan. Bat Euskal Herrian ari da —egunotan Donostian eta hurrengo astean Bilbon, Nafarroa osoan egon ondoren—, eta beste biak Espainia aldean. Ekainean biltuko dira hirurak hiri handietan aritzeko, eta abenduan Alemaniara etxeratuko dira, behin denboraldia amaituta.

Azkenak dira, eta onenak. Beren historia luzean inoiz egin den akrobazia ikusgarriena dago zizelduta urrezko letrekin. 1871n

Niagarako urjauzietan (EEBBetan) alderik alde paratu zuten hari metalikoa, eta gainetik zeharkatu zuten Bordinitar batek, beheago 400 metroko jauzia zuela. Duela zenbait urte, halaber, Malagako Ronda herrian (Espainia), ibaia zeharkatu zuten 300 metroko alturatik. «Espainiako prentsan gure aurkezpena izan zen» dio Mikel Bordini. Ez da, baina, familia osoa alde batetik bestera aritzen. Bordinitar batek arrisku handiko pelikuletan hartzen du parte Estatu Batuetan, nahiz eta hemengoek horretarako egin daudela dioten. «Nik ere izan ditut eskaintzak bertan lan egiteko» dio Mikelek, «baina nahiago dut hau. Askoz diru gehiago irabaz nezakeen han, baina ni artista naiz, mundu hau behar dut».



XAKEAN



Iruñeko Hiria torneo irekiaren 7. ihardunaldiko partida, 1944ko urtarrilaren 3an jokaturia.


Carlos Martinez (Nafarroa)- J. Javier Cortes 2.255 ELOkoa (Nafarroa).

1. c4, e5; 2. Zc3, Zc6; 3. Zf3, f5; 4. d4, e4; 5. Zg5, Zf6; 6. e3, Ae7; 7. Zh3, 0-0; 8. Zf4, a5; 9. Ae2, Ad6; 10. g3. Izugarritzko zuloa zabalduko litzateke alfilak zaldia harapatuko balu (g-f4). 10...., Ab4; 11. d5, Ze5; 12. Ad2, De7; 13. Zb5, c6; 14. Zd4, fZ-g4; 15. h3, Zh6; 16. a3, Ad2 xa; 17. Dd2, c5; 18. Zb5, d6; 19. h4, hZ-g4; 20. Ef1, b6; 21. Eg2, Gf6; 22. b4, g6; 23. b-c5, b-c5; 24. aG-b1, h6; 25. Zc3, Gf8; 26. Gb6, g5; 27. g5, g5; 28. Ze6. Beltzak oso irekiak daude. Peoi bat irabazteko zorian, bai, baina presioa txuriena da.

28...., Ae6; 29. e6, aG-d8; 30. Zd5, De6; 31. Gh5, Zf7; 32. Ag4, g4; 33. Gb7, Gb8; 34. Db2, Gb7; 35. Db7, Ge8; 36. Db2, Ef8. Nahi izanez gero, txuriek berdinketa daukate: 37. Gh8 xa, Zh8; 38. Dh8 xa. 37. Zc7, De5; 38. De2, Gc8; 39. Zd5, Df5; 40. Db2, Ge8; 41. Zf6, Ge5. Dena galazten duen jokaldia. 42. Zd5, Df3 xa; 43. Eg1, Eg7; 44. Gh2. Desegokia. Orain berdinketa dute beltzek, baina baita irabazteko modu polita ere. Ikus Koadroa. 44...., Dd1 xa; 45. Eg2, a4; 46. Gh1, Db3; 47. Db3, b3; 48. Zc3, d5; 49. Zd5, Gd5; 50. d5, c4; 51. Gb1, Zd6; 52. a4, Zb7; 53. d6, Ef6; 54. Ef1, Za5; 55. Ee2, c3; 56. Gb3, Zb3; 57. Ed1, E6; 58. Ec2, Zc5; 59. a5, Ed6; 60. Ec3, Zd3. Beltzek ederki eman zioten buelta partidari.

Nere herria

Mendigorria da nere gurasoak jaio ziren herria. Nahiz eta ia-ia Erriberan egon, mendi baten gainean kokaturik dago. Handik pasatzen da Arga ibaia, erromatarrek egin zuten zubiaren azpitik. Mendigorriko iparraldean Gares dago, non, nere herriko neska-mutil gazte gehienak haien bikotea aurkitzen duten; mendealdean Zirauki dago, hangoa zen OHOKO nere ingelera irakaslea. Mendigorriko hegoaldean Larraga aurkitzen dugu eta ekialdean Artaxona. Handik ere pasatu



Aritz Erro
(BARAÑAIN)

elizaren harri bat dastatzen baduzu, ardo zaporea daukala konturatzen zara.

Bi eskola daude nere herrian baina bakarrik bat erabiltzen da irakaskuntzarako, bestea duela hiru urte erabiltzen zen horretarako, baina orain sukaldaritza eta informatika ikastaroak ematen dira. Eskola berrietan Eskolaurreko eta OHOKO klaseak ematen dira; herriko neska-mutilak Tafallara, Lizarrara edo Iruñera joaten dira BBB eta Lanbide Ikasketak egitera.

Baita ere, herri askotan bezala, nere herrian festak izaten dira: abuztukoak, festa handiak. Asuncion Amabirjinare-



ziren erromatarrek. Nere herriko biztanlegoa ez da oso handia. Bakarrik mila biztanle, gutxi gora-behera, bizi dira. Hango familia asko hiriburuan bizi dira eta asteburu eta udan joaten dira herrira, gure kasuan gertatzen den bezala.

Herriko jende gazte gehienak heritik kanpo lan egiten du, batez ere lantegietan; adibidez, nere osaba batek Seaten lan egiten du. Geratzen den jende gaztea eta jende zaharra nekazaritzaz eta abel-

tzantaz bizi da.

Bi eliza daude nere herrian: bata, herriaren goiko partean dagoena eta oso gutxi erabiltzen dena (Santa Mariakoa). Bestea herriko enparantzan dago, zentruan; hemen, igandero eta larunbatero ospatzen da meza eta baita ere ospakizun garrantzitsuenak ere; eliza hau, barroko estilokoa da eta, kondaira batek dioenez, urarekin egin beharrean, ardoarekin egin zuten. Nere ustez, hau egia da, zeren,

nak eta otsaileko feriak, Santa Apoloniarenak. Hauek bakarrik asteburu bat irauten dute. Lehen esan dudana bezala, erromatarrek nere herriko pasatu ziren duela urte mordo bat. Ibaian zubi egin zuten, eta hau igaro eta bestaldean hiri erromatar bat egin zuten: Andelos. Orain han hiri horren harri asko geratzen dira eta ermita bat. Hara joaten dira urtean bi aldiz herriko jendea erromerian, eta meza izaten da.

JUANTXO URDIROZ

Ezkerrerrako piano kontzertua

Lan hori Maurice Ravel euskaldunak egina da. Hona hemen nola idatzi zuen. Paul Wittgenstein piano jolea, Ludwig Wittgenstein filosofoaren anaia, Lehen Munduko gerrara joan zen, Austriaren armadarekin. Errusian zauritu eta harapatu zuten. Espetxean zegoelarik, zauriak larritu eta eskuin besoa moztu behar izan zioten. Piano jole gehienentzat fina izan zitekena Wittgenstein saiatuarentzat atzerapen txiki bat baino ez zen izan. Gerra bukatutakoan eta osatu zenean, esku bakar batez jotzeko lanak eskatu zizkien garaiko kon-

posagileei, batzuek beste Britten, Strauss, Hindemith, Profokiev eta Ravel-i, propio berak sointzeko.

Ravel Sol Nagusiko kontzertu bat egiten hasia zen, guztiz bestelakoa. Baina Ravelek gogoko zituen halako mugape formalak, eta esku baterako kontzertu baten erronkari baietza esan zion. Esku batez nola lor ote zitekeen halako soinu borobila ikasteko, Saint-Saëns, Czerny, Alkan, Scriabin eta Godowskyren lanak begiztatu zituen. Obra bukatzean, piano jolea eta egilea elkartu ziren. Ravelek berak soinatu zuen lehendabizi-



Ez usteak
zure atean joka

Ravelek aitortu zuen:

«Esku baterako kontzertua besterik da. Jazzeko ukitu asko ditu eta idazkera ez da arina».

koz. Eta Wittgensteini ez zitzaion gustatu. Eta hola jakinarazi zion egileari. Beranduago Wittgensteinek idatziko zuen: «Ravelek berak soinatu zuen estraineko aldi kontzertua niretzat. Ravel ez zen piano jole bikaina, eta konposizioak ere ez ninduen txunditu. Nik ez dakit nire iritzia disimulatzen eta Ravel lur jota geratu zen. Urteak joanda, kontzertua pila bat aldiz ikasitakoan, ulertu egin nuen eta zoragarria iruditu zitzaion».

Baina piano jolea eta egilea ez ziren ados jarri noiz eta nola estrenatu. Hori zela eta Wittgensteinek Parisen estrenatu beharrean Viena eta Ravelen ardurapean ordez, Robert Hegerrenarekin estrenatu zuen kontzertua. Urte bat beranduago adixkidetu egin ziren berriro, eta biek batera jo zuten Parisen. Montecarlon jotzeko asmoa zuten

baina Ravel osasunez ez zebilen ongi. Neurastenia, ataxia eta afasiak joa zen. Esku baterako piano kontzertu batek lanak eman ditza-ke, hala ere ez zen aski Ravelentzat, eta bide nabar zerbait berezirik sartu nahi izan zuen kontzertu horretan. Berak aitortuko zuen: «Ezker eskurako kontzertua» besterik da. Jazz-eko ukitu asko ditu eta idazkera ez da arina. Halako lantxo batean, ezinbestekoa da bi eskutarako idatzia dagoen kontzertu baten itxura sendoa sortaraztea».

Begi bistan da euskaldun unibertsal bat baino gauza unibertsalagorik ez dagoela. Dena den Paul Wittgenstein jauna satelitea zen. Filosofian sartzeko aukera izango zuen, atza. Informazio iturria, Jonathan Krameren «Invitacion a la musica» liburua.

Heldu den astelehenean, ekainak sei, eskailerako azken koxka igoko dugu. Hogeita hamar egun besterik ez zaizkigu geratuko Sanferminetara heltzeko. Hilabete hori igarota, uztailaren seian, arratsaldeko hiru t'erdietan, urtero bezala autobus geltokitik Tuterakalera irtengo dira Iruñeko erraldoi eta kilikiak. Bertan euren zain diren konpartsek azken hilabeteotan prestatu dituzten koreografia berriei gozatu ahal izanen dute.

Koreografia erraldoiak

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Nor ez da inoiz, txikitan edota anaia, arreba, alaba edo semea aitzakitzat erabiliz, erraldoi baten barruan sartu? Nor ez zaio inoiz, txikitan edota aipatu aitzakiarekin, zaldiko edo kiliki bati hurbildu haren ondoan «kiliki con el palo no con la berga sí» oihukatzen? Iruindarren artean inor gutxi. Erraldoi eta kiliki konpartsak aski ongi dakite hori, eta iruindarroi zaletasun hori eskertu nahi izan digute aurrean, aipatu erraldoientzako koreografia berri eta ikusgarriak prestatuz.

Jesus Ramos iruensea erraldoi eta kiliki konpartsa kidea da. Ameriketako erregea sorbalda gainean daramala egiten du dantzan Ramosek. Errege beltzak —beltza baita Ameriketako errege erraldoi hau— latortziko hiru luma dauka buru gainean, arku eta geziak bizkarrean, eta bere 66,5 kiloekin erraldoi guztien artean astunena da Ameriketako errege hau. Jesus Ramos duela 16 urte saiatur zen estreinakoz kilo horiek guztiak altxatzen Izura jauna zenaren eskutik. Harrezgeroztik, urtero Sanferminetan goizero hamaika aldiz altxatu ditu kilo horiek dantzan egiteko. Berak azaldu digu —nork hobeto?— nondik nora doazen koreografia berriak.

«Argi dago gero eta maila altuagoa lortzen ari ginela, eta goizero gero eta jende gehiago hurbiltzen ari zela gogara. Hain zuzen ere horiei guztiei ikuskari hobea eskaintzeko asmoz, hots, egiten duguna aberastu arren erabaki dugu aurrean beste aurrearapauso garrantzitsu bat ematea». Jakina, erraldaien koreografia berriak asmatzean datza urrats hori.

Orain arte erraldoiek hiru koreografia besterik ez zerabilzkiten. Jesus Ramos konpartseroaren hitzetan «plaza zabalean talde dantzatzeko bat —esaterako, Katedrale parean erabiltzen ohi duguna—, kale estuetan talde dantzatzeko beste bat jota ize-nekoa —adibidez, Diputazio aurrean dantzatzeko ohi duguna—, eta azkenak bakarka kalejiran ibiltzeko —Iruñeko Alde Zaharreko karriketan erabiltzen ohi duguna—». Berriak plaza zabalean eta kale txikietan talde bereziki dantzatzeko asmatuak dira.

Koreografia berri guztiak konpartsa kideek asmatu dituzte. Jesus Ramosen arabera, «ez dira oso berritzaileak, erraldoiak bere xarma gorde dezan, ezin baituzu gehiegi behartu». Hori dela eta, erraldoiek beti era-



Sanferminetarako prestaketan gogor ari dira erraldaien konpartsak.

JOXE LACALLE

«Ez gara deus»

J.K.L. / IRUÑEA

■ Jesus Ramosek azaldu zigunez, erraldaien konpartsa ez da deus. Ez dauka estatuturik, ez du izaera legalik, elkarre bezala ez dira inon agertzen, eta Udalarekin, hori dela medio, ez daukate inolako harreman ofizialik. Lagun talde bat besterik ez da, urtean zehar tarteka-marteka afaltzeko elkartzen dena.

Hala eta guztiz ere, Sanferminak heltzen diren bakoitzean guztiok elkartzen dira, eta udalaren erraldoiak hartzen dituzte, eta karrikaz karrika dantzan ibiltzen dira.

Orotara zortzi dira dantzan ateratzen dituzten erraldoi ho-

riek, lau bikote, Tadeo Amorena duela 135 urte erraldoiak egin zituen artistaren hitzetan, munduko lau zatien ordezkariak. Horiek dira, kalejirako ordenaren arabera, Europako errege-erreginak, Asiako errege-erreginak, Afrikako errege-erreginak eta Ameriketako errege-erreginak.

Zurez eta kartoiz eginak dira. Astunenak, Ameriketako erregeak hain zuzen, 65,5 kilo pisatzen du, eta 59 arinenak, Europako erreginak alegia. Halaber, hiru metro eta 85 zentimetro da apalena, eta hiru metro eta 90 altuena. Dantzari bat barnean sartzen denean, lau metro eta 20 zentimetrora heltzen dira erraldoiak.

Jakina denez, erraldoiak ez dira kale kale bakarrik ibiltzen. Batetik musikariek laguntzen dituzte. Bi gaitero eta danborilerok bat erraldoi bakoitzeko, eta txistulari taldea azken erraldaien atzetik, Ameriketako erreginaren atzetik hain zuzen ere. Musika talde bakoitzak bere kabuz jotzen du kalejiretan, eta batera jotzen dute erraldoiek batera dantzatzeko dutenean.

Bestetik, beste hainbat pertsonaia euren alboan ibiltzen dira, hain zuzen ere sei kiliki —Verugón, Barbas, Coletas, Napoleón, Caravinagre eta Patata—, bost buruhaundi —Japonesa, Abuela, Japonés, Alcalde eta Concejal—, eta sei zaldiko.

biltzen ohi dituzten mugimendu, urrats eta aldaketak abiapuntutzat hartu dituzte koreografiak prestatzeko. «Dena dela, esan beharra dago azken emaitza zeharo berria dela, gauza politagoa eta txukunagoa agiten saiatur gara eta lortu dugula uste dut». Musika, berriz, ez da berria, erraldoiek normalean erabiltzen dituzten pieza berak erabili baituzte koreografia berrietan, «koreografiarekin bat egin dezaten ongi neurturik, noski».

Dena dela, oraindik ere zehazteko dago zenbat koreografia berri erabiliko dituzten aurtengo Sanferminetan. «Hasiera batean hiru prestatu genituen, gero beste hiru, eta egun ez dakigu zenbat prestatuko ditugun aurtengo Sanferminetarako, seiok prestatzeak entseiu asko eskatzen baitu». Entseiuak Udaltzaingorekin Iratxe Monastegiko egoitzan egiten dituzte. Hiru talde ezberdinetan banatu dira entseiateko egiteko, eta talde bakoitzak aurrean behin elkartzeko parada besterik ez dauka.

Entseiu horietatik heldu den Sanferminetan hala plaza handietan nola txikietan gozatu ahal

Koreografiak ez dira oso berritzaileak, erraldoiek beren xarmari eutsi diezaizoten, ezin baituzu dantza gehiegi behartu».

izanen ditugun koreografia berri eta ikusgarriak irtengo dira. Horrek, dena dela, ez du esan nahi konpartsa Alde Zaharreko karrika estuetan zehar bere ohizko kalejirak egingen ez dituenik, Jesus Ramosek argitu zigunez. «Seguru asko politena hori da. Txistu eta gaitekin egiten ditugun dantzak direla politenak esan nahi du, eta ez ditugu alde batera utziko, inondik inora ez».

Ramosek esperientzia oinarriturik esaten du hori, ez baita hau koreografia berriak prestatzen dituen lehen aldia. «Konpartsa 125 urte bete zituenean beste koreografia bat prestatu genuen. Hori da egungo koreografia berriaren aurrekaria. Berdin dio zer asmatzen dugun, kalejira izanen da beti erraldaien dantzen artean politena».

«Literatura zuloz betea dut gustuko»

A. BARANDIARAN / IRUÑA

EGUNKARIA.— Esan duzu aurreko liburuak baino zailagoa izan zaizula hau. Ipuinak iza-teagatik, edo gaiarengatik?

PELLO LIZARRALDE.— Hasieratik ez ditut ipuinak metatu nahi izan. Orduan ikusi ditut idatzi gabe nituen hamar narrazio, eta horrek inposatu dit hamar aldiz hasi eta hamar aldiz bukatu beharra. Gainera hasieran uste nuen lotuak zudelako, baina lanean hasi nintze-

naiz gora-behera handiko pertsona, eta liburua lagunei pasatu diedanean izututa gelditu dira batzuetan. Ez naute berehala ikusten nire errelatoetan. Jekyll eta Hyderena ikusten dute batzuetan, momentuarekin ez dutelako zerikusirik. Baina nik literatura egin nahi dut, eta nahi ditut historia irudiz sinpleak eta barnean oso konplikatuak, desosegu eta gatazka handikoak. Eta zuloz beteak. Literatura esplizituaren kontrarioa naiz, eta boron-

izan behar du. Jakina, ez historia eta xehetasun guztietan, baina autobiografia egiteko balio behar du liburu bakoitzak. Nigandik izan behar du asko. Azaleko irakurketa egiten duen batek ez du, akaso, Pello aurkituko, baina niretzat dena autobiografikoa da.

EGUNKARIA.— Hemen, zure beste liburuetan bezala, geografia oso garrantzitsua da, eta baita eguraldia ere.

LIZARRALDE.— Topografia eta eguraldia konstanteak dira,

harriazpiak, usain berri horiek. Ni hezetasunetik heldu naiz, pagotik, eta transiziozko paisaiak gustatzen zaizkit, desberdinagoak iruditzen zaizkidalako, aberatsagoak, denetik biltzen dutelako. Pablo Antónanaren paisaiak, adibidez.

EGUNKARIA.— Zer harreman du liburu honek aurrekoekin?

LIZARRALDE.— 'Hatza mapa gainean' liburuarekin uste dut oso lotua dagoela, konstante batzuk errepikatzen direlako: ihesa, adibidez...

EGUNKARIA.— Zu ere ihesean ibili zarela?

LIZARRALDE.— Ba, agian bai.

«Literatura esplizituaren kontrarioa naiz, eta borondate psikologikoa duena ez zait gustatzen».

Gainera beti bada beldur bat atzetik oso ondo azaldu ezin dena, 'Sargori' liburuan bezala. Nik badakit liburu hau nola irakurri behar den, edo nola gustatuko litzaidakeen besteek irakurtzea, baina ez dut esango. 'E'pericoloso sporgesi' liburuan ere zer kontatu nahi nuen bene-benetan badakit, baina inork ez dit oraindik esan. Beraz, neurri horretan liburu huts egindakoa izan da. Ezezagunari diogun beldurra-ekin zerikusirik badu, eta baita ezagutzen dugunetik ateratzeko dugun beldurra ere. Hori ideia funtsezkoa da nik idazten dudana liburuetan.

EGUNKARIA.— Nahiko tarte-kuak atera dira zure liburuak. Nola bizi dituzu tarte luze horiek?

LIZARRALDE.— Nik egunero pentsatzen dut liburuan. Egin nahi dudana egunero dut buruan. Oso inportantea da niretzat idaztea, beharra asetzen dudalako, eta nire bizitzaren zati bat delako.

Pello Lizarralde

IDAZLEA



SOSLAIA

Azpilkuetatik Iruñera

Azpilkuetan maisua bederatzi urtez izan ondoren, Iruñean laketu da aspaldi honetan Lizarralde, 'jubilatutik', eta horrek, nonbait, nahikoa indarra eman dio bere liburua argitaratzeko. Izan ere, egunkarietan eta «gehiagi» idazten dela dio, hitzaldi gehiegi ematen direla. «Idazleak bide hori hartzen duenean literatura hasten da baztertzeko, ahaztu egiten du». Italiarekin aspaldidantzik liluraturik, beti azaltzen diren bait erreferentzia bere liburuetan, eta hau ez da salbuespena, nahiz eta aurrekoetan baino ez-kutuagoa izan. Garrantzirik gabekoa dela dio, baina beste zulo bat da finean.



Pello Lizarralde, Tabakorik Gabeko Egunean.

JOXE LACALLE

nean zalantza izugarriak sortzen zitzaizkidan: asmakeria ote da nik pentsatu dudana lotura hau? Horretaz gain lan erritmoa ikaragarri zaila da, nobela batena baino zailagoa.

EGUNKARIA.— Ez zenion zeure buruari planteatu nobelatxo batean biltzea?

LIZARRALDE.— Ez, ze gero konturatzen zara franko diferenteak direla. Konstanteak, hala ere, hor daude: protagonista —sargoria— eta giro sargoritsuan daudela hama-rrak. Ikuspuntua ere oso konstantea da.

EGUNKARIA.— Sargoriaren inguruan aipatu dituzu hainbat hitz: sargoria, arriskua, desosegua, oinazea, bortitza, beldurra... Horrek zer lotura dauka zure bizipenekin?

LIZARRALDE.— Begira, ni ez

date psikologikoa duen literatura ez zait batere gustatzen. Sujerentziaren literatura kontrajartzen diot nik horri. Lagun batzuek esan didate erabat frustratuta gelditu direla zenbait ipuinekin, horrek jarraipena behar zuela...

EGUNKARIA.— Eta zuk baduzu zure jarraipena?

LIZARRALDE.— Nik badaukat, eta badakit nola bukatu daitezkeen, baina uste dut inportanteena esana dagoela, eta hortik aurrera joatea nik nahi dudana traizionatzea dela. Baina beti izango da azkenean zalantza hori.

EGUNKARIA.— Zeure burua erreprezentatuta ikusten duzu ipuinotan?

LIZARRALDE.— Idatzi behar den guztiak autobiografikoa behar du, norberaren historia

baina ez naiz kontzientea. Niri hainbeste gustatzen zaidan Peter Handke idazleak esaten zuen bera hasieran argazkilaria zela. Hartzen zituen bi-daietan egindako argazkiak eta haien deskribapena idazten zuen. Argazkilaria izatek topografoa izatera pasatu zen. Nik ere topografia oso gustukoa dut.

EGUNKARIA.— Makina bat tokitan ibili zara: Zumarragatik Donostira, gero Orion, handik Saldiasera, Azpilkuetan eta Iruñea. Nongo geografiak markatu zaitu gehiago?

LIZARRALDE.— Edozein paisaia gustatzen zait, baina batzuek nortasun handiagoa dute. Nafarroa asko gustatzen zait, eta gehiena mendi karlistak. Orain barneen dudana paisaia Estellerrikoa da. Harriak,

NOSKIJATOR

JACK KIRBY, MARFIZILARIEN ERREGEA, HIL DA GOIAN BEGO ETA ABAR...

© Zaldi Eroak

